



**PERTSONALAREN KUDEAKETAKO ZUZENDARITZAREN ZIRKULARRA,**  
**FUNTZIONARIOEN BATERAEZINTASUNEN ERREGIMENARI**  
**DAGOKIONEZ**

Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 74. artikulua zera xedatzen du: *“Funtzionarioek indarrean dauden legeetan jarritako bateraezineko errejimena zorrotz bete eta Euskal Administrazio Publikoek hori bete dadin eskatu beharko dute. Sektore publikoan edo pribatuan beste lan edo jardunen baten aritu ahal izateko, berariazko egokitasun-baimena eman beharko da beti aurretik eta hori, indarrean dauden legeek hori ohartemandako kasuetan bakarrik eta arauz ezarriko den prozeduraren arabera emango da”*. Aplikagarri gertatzen da, bertan batera biltzen baitira oinarritzko ezaugarria, abenduaren 26ko 53/1984 Legea, Administrazio Publikoetan zerbitzu ematen duten pertsonen bateraezintasunaren gainean (BOE 1985/1/4), eta apirilaren 30eko 598/1985 Errege-Dekretua, aurrekoa garatzen duena.

Izan ere, baimen egokia<sup>1</sup> garatu nahi den ekintzari ekin baino lehen eskatu behar da. Hori dela bide, honako hau behar da argitu: bateragarritasuneko baimena ez dela mugagabea, eta ez zaiola pertsonari ematen, baizik eta eskariaren bitartez garatu nahi den ekintza zehatzari dagokiola, eta ezein kasutan ere ez duela balio ikasturte bat baino gehiagorako.

Ikasturte bereborean kurtso bat, mintegi bat, etab. baino gehiago eman nahi izanez gero, egin gura diren ekintzak adina baimen eskatu beharko dira. Horiek eman egingo dira baldin indarreko arauak zehazten duten emateko ordu kopuruari buruzko mugak errespetatzen badituzte. Hobetuz ikastaroak eta antzekoak ere sartzen dira atal honetan.

Kontuan eduki beharra dago 6/1989 Legeko 82. artikulua zera adierazten duela: *“Funtzionarioek dituzten eginbeharrak eta eginkizunak ez betetzea hutsegite izango da eta lege honetan ohartematen diren zigorrak ezartzea ekarriko du”*.

Bestalde, kontuan eduki behar da langileak Gizarte-Segurantzaren Erregimen Nagusian sartuak egonez gero, beste jarduera ordaindu batean edo beste batzuetan

---

<sup>1</sup> Bateragarritasuneko baimenerako eskabide inprimakiak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Lurralde Ordezkaritzetan jaso daitezke.



aritzeak zera eragin dezakeela: hainbat jarduerarengatik sortutako kotizazioko oinarrien kopuruak legez ezarritako muga gainditzea. Kasutan baliteke Gizarte-Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren aurrean hainbat enpresa enplegatzaileen artean oinarri arautzaileak banatzearen izapidea egitea.

Izapide hori egiteko, langileak Ordezkaritzari eskatuko dio “*Enpleguaniztasunagatik kotizazioko muga banatzeko eskabidea*” inprimakia betetzea. Interesatuak oraindik bateragarritasunik eskatu ez badu, lehenago egitera gonbidatua izango da. Bateragarritasun baimendua dagoeneko badauka, eskariari erantzun egingo zaio. Baina bateragarritasuna eskatu zuenean ukoa jaso baldin bazuen, ez da egongo egiterik orain eskatzen duen ziurtagiria.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko ekainaren 28an.

**PERTSONALAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA**

Itziar Garaizar Agirre

<sup>1</sup> Bateragarritasuneko baimenerako eskabide inprimakiak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Lurralde Ordezkaritzetan jaso daitezke.